

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

195/2016 Foru Agindua, abuztuaren 1ekoa, onartzen duena bete direla Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren uztailaren 8ko 176/2016 Foru Aginduan ezarritako baldintzak, zeinaren bidez behin betiko onartu baitzen Zuiako udal planeamenduaren arau subsidiarioen 5. aldaketa espedientea, Murgiko (Zuia) 7 poligonoko 308 lurzatiaren (28 lurzati zaharraren zatia) kalifikazioa aldatzeari buruzkoa

AURREKARIAK

Lehenengoa. Uztailaren 8ko 176/2016 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen baldintzekin Zuiako udal planeamenduaren arau subsidiarioen 5. aldaketa puntualaren espedientea, Zuiako 7 poligonoko 308 lurzatiaren (28 lurzati zaharraren zatia. Murgia) kalifikazio aldaketari buruzkoa.

Bigarrena. 176/2016 Foru Agindu horrek berak, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, ezarri zuen, haiek zuzendu eta gero, espedientea foru aldundira igorri beharko zela, jendaurrean jartzeko izapidetik berriro pasatu gabe, haren betearazte indarra adierazteko, izapideak egiteko eta argitara emateko.

Hirugarrena. 2016ko uztailaren 21ean, espedientearen testu bateratua sartu zen aldundi honen erregistroan.

OINARRIAK

Aurkeztutako agiriak aztertu dira, eta egiaztatu da bete direla foru agindu horretan ezarritako baldintzak.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat ematea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren martxoaren 18ko 176/2016 Foru Aginduan ezarritako baldintzak, zeinaren bidez behin betiko onartu baitzen Zuiako udal planeamenduaren arau subsidiarioen 5. aldaketa espedientea, Murgiko (Zuia) 7 poligonoko 308 lurzatiaren (28 lurzati zaharraren zatia) kalifikazioa aldatzeari buruzkoa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta berorren aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 1a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO